

# OSAKIDETZA 2016-2017KO EPEA

## HAUTAKETA-PROZESUAN IZENA EMATEKO ARGIBIDEAK

**2018ko otsailaren 8ko EHAAN 103/2018** Ebazpena, otsailaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena argitaratu da. Horren bidez, **oinarri orokorrak** onartzen dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko 2016. eta 2017. urteetan deitutako hautaketa prozesuak arautzen dituztenak, alegia.

### Ebazpenak eta deitutako kategoriak argitaratu dira

2018ko otsailaren 15ean **kategoria** hauen **deialdia eta oinarri espezifikoak** jasotzen dituzten Osakidetzako zuzendari nagusiaren Ebazpenak argitaratu dira:

<i>Familia mediku FE LMAT</i>	<i>Erradioterapiako teknikari espezialista</i>
<i>Pediatriako mediku FE LMAT</i>	<i>Dokumentazio sanitarioko teknikari espezialista</i>
<i>Erizaina</i>	<i>Dietetikako teknikari espezialista</i>
<i>Osasun mentaleko erizaina</i>	<i>Audioprotesiko teknikari espezialista</i>
<i>Lan-osasuneko erizaina</i>	<i>Administraria</i>
<i>Fisioterapeuta</i>	<i>Erizaintzako laguntzailea</i>
<i>Emagina</i>	<i>Farmaziako laguntzailea</i>
<i>Anatomia Patologiko teknikari espezialista</i>	<i>Administrari laguntzailea</i>
<i>Laborategiko teknikari espezialista</i>	<i>Zeladorea</i>
<i>Erradiodiagnostikoko teknikari espezialista</i>	<i>Zerbitzuetako langilea</i>

Kategoria horien hautaketa-prozesuan izena emateko epea **otsailaren 16ko 9:30etik 2018ko martxoaren 15eko 14:00etara** bitartekoa izango da.

2018ko otsailaren 19an **kategoria** hauen **deialdia eta oinarri espezifikoak** jasotzen dituzten Osakidetzako zuzendari nagusiaren Ebazpenak argitaratu dira:

Fak. Esp. Alergologiako Medikua	Fak. Esp. Medikuntza intentsiboko medikua
Fak. Esp. Anatomia Patologikoko medikua	Fak. Esp. Barne medikuntzako medikua
Fak. Esp. Anestesiologia eta bizkorketako medikua	Fak. Esp. Medikuntza nuklearreko medikua
Fak. Esp. Aparatu digestiboko medikua	Fak. Esp. Neurofisiologia klinikoko medikua
Fak. Esp. Kardiologiako medikua	Fak. Esp. Neurologiako medikua
Fak. Esp. Bihotz-hodietako kirurgiako medikua	Fak. Esp. Onkologia medikoko medikua
Fak. Esp. Kirurgia orokorra eta aparatu digestiboko medikua	Fak. Esp. Haurrentzako psikiatriako medikua
Fak. Esp. Aho eta aurpegi-masailaetako kirurgiako medikua	Fak. Esp. Otorrinolaringologiako medikua
Fak. Esp. Kirurgia ortopedikoa eta traumatologiako medikua	Fak. Esp. Ospitale-pediatriako medikua
Fak. Esp. Pediatria kirurgikoko medikua	Fak. Esp. Psikiatriako medikua
Fak. Esp. Kirurgia plastikoa, estetikoa eta konpontzaileko medikua	Fak. Esp. Erradioterapia onkologikoko medikua
Fak. Esp. Endokrinologia eta nutrizioko medikua	Fak. Esp. Erradiodiagnostikoko medikua
Fak. Esp. Hematologia eta hemoterapiako medikua	Fak. Esp. Erreumatologiako medikua
Fak. Esp. Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioko medikua	Fak. Esp. Urologiako medikua

Kategoria horien hautaketa-prozesuan izena emateko epea **otsailaren 20ko 9:30etik 2018ko martxoaren 19ko 14:00etara** bitartekoa izango da.

2018ko martxoaren 5ean **kategoria** hauen **deialdia eta oinarri espezifikoak** jasotzen dituzten Osakidetzako zuzendari nagusiaren Ebazpenen argitalpena aurreikusita dago:

FAK. ESP. ALERGOLOGIAKO MEDIKUA	FAK. ESP. OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO MEDIKU-TEKNIKARIA
FAK. ESP. TORAXEKO KIRURGIKO MEDIKUA	FAK. ESP. OSPITALE-FARMAZIAKO TEKNIKARIA
FAK. ESP. DERMATOLOGIA MEDIKO-KIRURGIA ETA BENERELOGIAKO MEDIKUA	FAK. ESP. PSIKOLOGO-KLINIKO TEKNIKARIA
FAK. ESP. LARRIALDIETAKO MEDIKUA	FAK. FARMAZIALARI TEKNIKARIA
FAK. ESP. GAIXOTASUN INFEKTSIOSOETAKO MEDIKUA	FAK. ODONTOLOGO TEKNIKARIA
FAK. ESP. ETXEKO OSPITALIZAZIORAKO MEDIKUA	GOI-MAILAKO TITULUDUNA - LETRADUA / JURIDIKOKO GOI-TEKNIKARIA
FAK. ESP. LANEKO MEDIKUNTZAKO MEDIKUA	GOI-MAILAKO INGENIARIA
FAK. ESP. MEDIKUNTZA PREBENTIBO ETA OSASUN PUBLIKOKO MEDIKUA	GOI-MAILAKO INFORMATIKARIA
FAK. ESP. NEFROLOGIAKO MEDIKUA	GOI-MAILAKO TITULUDUNA - EKONOMIAKO GOI-TEKNIKARIA
FAK. ESP. NEUMOLOGIAKO MEDIKUA	GOI-MAILAKO TITULUDUNA - ANTOLAKUNTZAKO GOI-TEKNIKARIA
FAK. ESP. NEUROKIRURGIKO MEDIKUA	GOI-MAILAKO TITULUDUNA - EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-TEKNIKARIA
FAK. ESP. OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO MEDIKUA	GOI-MAILAKO TITULUDUNA - SEGURTASUN ETA HIGIENEAREN PREBENTZIORAKO GOI-TEKNIKARIA
FAK. ESP. OFTALMOLOGIAKO MEDIKUA	GOI-MAILAKO TITULUDUNA - ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAKO GOI-TEKNIKARIA
FAK. ESP. GSU-KO MEDIKUA	GOI-MAILAKO TITULUDUNA - LIBURUZAINA
FAK. ESP. OSPITALEKO LARRIAIAIETAKO MEDIKUA	INGENIARI TEKNIKO
FAK. ESP. ANALISI KLINIKOEN TEKNIKARI-MEDIKUA	GIZARTE LANGILEA
FAK. ESP. BIOKIMIKA KLINIKOREN TEKNIKARI-MEDIKUA	SUKALDARIA
FAK. ESP. INMUNOLOGIAKO MEDIKU TEKNIKARIA	INFORMATIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
FAK. ESP. MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIAKO MEDIKU-TEKNIKARIA	MANTENIMENDU OFIZIALA

Kategoria horien hautaketa-prozesuan izena emateko epea **martxoaren 6ko 9:30etik 2018ko apirilaren 5eko 14:00etara** bitartekoa izango da.

## **Nola egin eskabidea**

Izena emateko **eskabidea elektronikoki** egin behar da web orriaren bidez:

<http://www.osakidetza.euskadi.eus> ibilbide honetan:

Profesionalak -> Hautaketa eta horniketa -> 2016-17 EPErako sarrera -> Eskabidea

Hautaketa-prozesuan izena emateko, alde batetik, **eskabide elektronikoa bete behar da** eta, bestetik, **izena emateko eskubideak ordaindu behar dira**. Bi ekintza horiek izena emateko epearen barruan egin behar dira. Izena emateko epe horretan ez da inolako agiririk aurkeztu behar.

Hautaketa-prozesuan izena emateko erabili beharko den **pasahitza** honakoa izango da:

- Osakidetzako informazio-sistemetara sartzeko erabiltzen duzuna (Enpleguaren Ataria, Osabide edo Norbide).

- Osakidetzako informazio sistemetarako sarbidea eduki ezean, 2014-2015 EPEan izena emateko erabili zenuena.

- 2014-2015 EPEan izenik eman ez bazenuen: 2014ko Kontratazio Zerrendetan izena emateko erabili zenuena.

- 2014ko Kontratazio Zerrendetan izena eman ez bazenuen, baina Osakidetzan lan egin eta bertan curriculuma baduzu, kontratazio-zerrendetara sartzeko pasahitza curriculumekoa izango da.

- Aurreko ataletan ez bazaude, aplikaziora lehen aldiz sartzean adieraziko zaizun pasahitza erabili beharko duzu. Pasahitza gogoratu beharko duzu etorkizunean zure eskabideari buruzko kontsultak eta aldaketak egiteko. Egoera horretan bazaude, hautatzen duzun pasahitzak baldintza hauek derrigorrez bete beharko ditu:

a) 8 eta 15 karaktere artekoa izango da

b) gutxienez letra xehe bat, letra larri bat, zenbaki bat eta hauetako karaktere berezietako bat “ !()=@\_+,-.%\$#&/;:<>?” eduki beharko ditu.

### **Pasahitza gogoratzen ez baduzu, hau egin berreskuratzeko:**

a) Osakidetzako informazio-sistemetara sartzeko pasahitza berreskuratzeko: 945006464 telefonora deitu dezakezu.

b) Beste pasahitzetarako: eskabidearen formularioan bertan hori bidaltzea eska dezakezu, aplikazioak sartzeko pasahitza eskatzen dizunean. Kasu horretan dagokion prozesuan (2014-2015eko EPEa, 2014ko Kontratazio Zerrendak, etab.) zehaztutako helbide elektronikora bidaliko dizute.

- Modu horretan pasahitza ezin baduzu berreskuratu, edo bidalitakoak ez badizu eskabidera sartzen uzten: harremanetan jar zaitezke 945006150 telefonoan. Bertan, pasahitza eskatzeko eta lortzeko modua zein den adieraziko dizute edo, [epe-ope@osakidetza.eus](mailto:epe-ope@osakidetza.eus) helbidearen bidez eska dezakezu, NANaren kopia eskaneatua bidaliz.

## **Informazioa eta eskabideak formalizatzea**

Eskabidea <http://www.osakidetza.euskadi.eus> web orrian egin eta gero, **izena emateko eskabidea aplikazio informatikoaren bidez bidaltzen da; hortaz, ez da beharrezkoa aurkeztea.** Era berean, ez da beharrezkoa izena emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztea.

Eskabidea betetzeko eta, banku elektronikoko bezeroa bazara, tasa ordaintzeko ere **modalitate hau erabiltzea gomendatzen dizuegu.** Eskabidea zure etxetik edo edozein ekipo informatikotik egin dezakezu, Interneterako konexioa izanez gero, edo bestela Kzguneko Sarearen edozein zentrotik. **Horri esker, ez duzu denborarik galduko joan-etorrietan ezta itxaroten ere.**

## **Aurrez aurreko arreta**

Aurrez aurreko arreta behar izanez gero, Osakidetzak aukera hauek ematen dizkizu:

**Osakidetzako langilea bazara,** zure Zerbitzu Erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzara jo dezakezu.

**Osakidetzan lanean ez daudenentzat,** aurrez aurreko arretarako lekuak jarraian jasotakoak izango dira:

Araba:

- Osakidetza – Hautaketa eta Horniketarako Zerbitzua –(Araba kalea, 45, Gasteiz)
- Arabako Errioxa ESla (Logroño-Gasteiz errepidea, 59. km. Laguardia).

Bizkaia:

- Bilbao-Basurtu ESla (Montevideo etorb., 18, Bilbo)
- Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESla (Gurutzetako plaza z.g., Gurutzeta-Barakaldo)
- Barrualde-Galdakao ESla (Labeaga auzoa z.g., Galdakao)

Gipuzkoa:

- Donostialdea ESla (Begiristain dk. pasealekua, z.g., Donostia- San Sebastián)
- Bidasoako ESla (Zubieta finka, Mendelu auzoa, z.g., Hondarribia)
- Debabarreneko ESla (Mendarozabal auz., z.g., Mendaro)
- Debagoieneko ESla (Nafarroa etorbidea, 16. Arrasate-Mondragón)
- Goierri-Urola Garaiko ESla (Argixao auz., z.g., Zumarraga)

**Aurrez aurreko arretako ordutegiak: Hautaketa eta Horniketa – GGBB zuzendaritza (Gasteiz)**

Astehenetik ostegunera: 9:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 16:30etara

Ostiralean: 9:00etatik 14:00etara

**Aurrez aurreko arretako ordutegiak: Beste Erakunde batzuk.**

Astehenetik Ostiralera: 8:00etatik a 15:00etara

<http://www.osakidetza.euskadi.eus> ibilbide honetan:

Profesionalak -> Hautaketa eta horniketa -> 2016-2017ko EPE  
eta 945006150 telefonoan.